

5. IBILBIDEA

MONTOLAN DORREA


INFORMACIÓN


Irteera-puntua	Mendatako Harrera-Puntua
Helmuga-puntua	Mendatako Harrera-Puntua
Ibilbidea	Mendata – BI 3222 Errepidea – Marmiz – Elexalde – Errotako Basoa – Montolan – Zarrabenta - BI-3241 Errepidea – Berriondo – Estabil Errota – Urbitarte - BI-3222 Errepidea – Mendata
Distantzia (km)	12
Pilatutako desnibel positiboa (m)	375
Gutxi gorabeherako iraupena	1 h 40 min
Bizikletentzako bidea	% 95,8
Norantza	Norantza bakarra % 100
Zoru-mota	Bidea/Pista %33,4, Bide asfaltatua/Zementua % 3,4, Errepidea % 55,2, Bidezidorra % 8
Zailtasun-maila	Oso handia Txirrindulari espezializatuen gaitasunak erakusteko ibilbide erakargarri, tekniko eta gogorra. Ibilbidean zehar desnibel handiak eta gunee estuak daude, txirrindulatik jaisteko modukoak. Nekatuta bagaude ibilbidea labur dezakegu 3 eta 4 ibilbideak jarraituz Zarrabentako auzoan. Hasieratik ura eramatea eta zenbait tartetan aske dauden txakurrekin kontuz izatea aholkatzen da.
Bestelako informazioa	Mendatatik Marmizera BI-3222 errepidetik jaitsiko gara. Bertan, eta BI-2224 errepidearekin dagoen bidegurutzea kontu handiz igarotakoan, jaitsiera handia eta gogorretik joango gara. Uneoro zainduko dugu daramagun abiadura, Donejakue Bidearen zati bat delako berau, eta Elexalderaino doazen erromesak aurki ditzakegulako. Aurreko gertaerarekin batera, bi pasagune estu eta tekniko igaro beharko ditugu. Horretan hobe dugu bizikletatik jaistea. Elexalden, eskumarantz doan pista txikia hartuko dugu. Gorantz doan aldapa gogor honek oso baso itxirantz eramango gaitu. Artzubiko zubi zahar eta izugarri dotorea gurutzatuko dugu, eta oso ibilbide tekniko, gogor eta zailaren ostean (egurrezko bi langa gurutzatuko ditugu) Zarramentako

etxeetara helduko gara. Puntu honetan ezkerrerantz egingo dugu BI-2224 errepidetik jaitsiz, eta bi okergune eta gero, Golako erreka haranatik eramango gaituen bide bat hartuko dugu eskumarantz.

Bide zabal eta zoru onekoa da. Beti gorantz joango gara Ikeria errotaraino. Apur bat aurrerago, egurrezko zubitxo izango dugu erreka gainetik igarotzeko, eta egur-langa igaro ostean, ibilbidearen alderik gogorrenari ekingo diogu. Hain gogorra da 300 metrotan zehar txirrindulatik jaitsita egin beharko dugula. Azken partea, gogorra baina etzanagoa, txirrindula gainean egiteko modukoa da.

BI-3222 errepidera heldutakoan, eskumarantz biratuko dugu eta poliki-poliki, deskantsatuz eta arnasa hartuz, Mendatako Harrera-Puntura helduko gara.





IRTEERA PUNTUA ETA HELMUGA PUNTUA: MENDATAKO HARRERA PUNTUA (BIZKAIA).

IBILBIDEA: MENDATA - BI-3222 ERREPIDEA - MARMIZ - ELEXALDE - BOSQUE ERROTAKO - MONTOLAN - ZARRABENTA - BI-3241 ERREPIDEA - BERRIONDO - ESTABIL ERROTA - URBITARTE - BI-3222 ERREPIDEA - MENDATA.

KM: 12,1 - METATUTAKO DESNIBEL POSITIBOA: 375 M - IRAUPENA, GUTXI GORABEHERA: 1 H 40 MIN

BIZIKLETENTZAKO BIDEA: 95,8% - NORANZKO BAKARRA: 100% - ZORU MOTA: PISTA/BIDEA 33,4% BIDE ASFALTATUA: 3,4% ERREPIDEA 55,2% BIDEKKA: 8%.

ZAILTASUN MAILA: OSO HANDIA.


IBILBIDE ERAKARGARRIA, TEKNIKO ETA ZAILA DA, TXIRRINDULARI ESPEZIALIZATUEN ABILEZIA AGERIAN JARTZEKO MODUKOA. IBILBIDEAN ZEHAR, DESNIBEL HANDIAK ETA TARTE ESTUAK DAUDE, ETA ZENBAITETAN BIZIKLETATIK JAITSI BEHAR IZANGO DUGU. NEKATUZ GERO, ZERRAMENTA AUZOAN 3. ETA 4. IBILBIDEETATIK JARRAITUTA LABURTU AHAL IZANGO DUGU IBILBIDEA. HASIERATIK URA ERAMATEA ETA ZENBAIT TARTETAN SOLTE DAUDEN TXAKURREKIN KONTU IZATEA GOMENDATZEN DUGU.

MENDATATIK MARMIZERA JAITSIKO GARA BI-3222 ERREPIDEATIK. BI-2224 ERREPIDEAREKIKO BIDEGURUTZEA ARRETATZ ZEHARKATU ONDOREN, JAITSIERA ZAILA ETA GOGORRA EGINGO DUGU. ABIADURA KONTROLATU EGIN BEHARKO DUGU BETI. IZAN ERE, DONE JAKUE BIDEAREN TARTE BAT DA, ETA KONTRAKO NORANZKOAN DATOZEN ERROMESEKIN TOPO EGIN DEZAKEGU ELEXALDERA IRITSI ARTE. HORREZ GAIN, BI PASABIDE ESTU ETA TEKNIKO GAINDITU BEHARKO DITUGU, ETA HOBE IZANGO DUGU BIZIKLETATIK JAISTEA.

ELEXALDE AUZORA IRISTEAN, ESKUINETARA EGIN ETA PISTA TXIKI BAT HARTUKO DUGU. PISTA HORRETAN ZEHAR, BASO ITXI BATEAN SARTUKO GARA. ONDOREN, ARTZUBI ZUBI ZAHARRA ETA IKUSGARRIA ZEHARKATUKO DUGU ETA, IBILBIDE TEKNIKO, GOGOR ETA ZAIL BATEAN ZEHAR (ZUREZKO BI BURDIN LANGA ERE GAINDITU BEHARKO DITUGU), ZARRABENTAKO ETXEETARA IRITSIKO GARA. PUNTU HORRETAN, EZKERRETARA EGIN ETA BI-2224 ERREPIDEATIK JAITSIKO GARA. BIRA PARE BAT EGIN ONDOREN, GOLAKO ERREKAREN HARANEAN ZEHAR ERAMANGO GAITUEN BIDE BAT HARTUKO DUGU ESKUINETAN.

BIDE ZABALA ETA ZORU ONEKOA DA. BERTATIK, BETI GORA EGINEZ, IKERIAKO ERROTARA IRITSIKO GARA. AURRERAXEAGO, IBAIA ZEHARKATUKO DUGU ZUREZKO PASABIDE BATETIK. BURDIN LANGA BAT GAINDITU ONDOREN, IBILBIDEAREN ZATIRIK GOGORRENA EGINGO DUGU. 300 METRO INGURUTAN, EZIN IZANGO GARA BIZIKLETA GAINEAN IBILI. AMAIERA EZ DA HAIN GOGORRA, ETA BIBIKLETAZ EGIN AHAL IZANGO DUGU.

BI-3222 ERREPIDERA IRISTEAN, ESKUINETARA EGIN ETA MENDATARAINO JARRAITUKO DUGU. AZKENIK, ATSEDEN HARTU ETA ARNASA BERE ONERA ETORRI ONDOREN, MENDATAKO HARRERA PUNTURA ITZULIKO GARA.



EUSKADI BTT ZENTROEN MARKATZEKO PLAKAK ○ BU015
EUSKADI BTT ZENTROEN MARKATZEKO ZUTOINEAK □ BU192

GOGOAN IZAN - ERABILI KASKOA - ERRESPETATU OINEZKOEN LEHENTASUNA ETA ZIRKULAZIO ARAU OROKORRAK - ERRESPETATU IBILBIDEEN SEINALEAK ETA ZIRKULAZIO NORANZKOA - EUSKADIKO BTT ZENTROAK EZ DIRA ZIRKUITUEN OKERREKO ERABILERAREN ERANTZULE IZANGO, EZ ETA ERABILTZAILEEN ZUHURTZIAGABEKERIEEN ERANTZULE ERE - GALDUZ GERO, GOGOAN IZAN SEINALEAK ZENBAKI BATEKIN KODETUTA DAUDELA. DEITU HARRERA PUNTURA ETA/EDO BESTE LAGUNTZA ZERBITZU BATERA, ETA JAKINARAZI ZENBAKIA - TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOAREN BITARTEZ FEDERAZIOAREN LIZENTZIA ATERTZEA **GOMENDATZEN DUGU** (ESKATU INFORMAZIOA EUSKADIKO BTT ZENTROKO LANGILEEI).

EZ AHAZTU - SEINALERIK EZ BADAGO, JARRAITU LEHENTASUNEN BIDETIK - BAKARRIK IBILI BEHAR BADUZU, ADIERAZI ZER IBILBIDE EGINGO DUZUN HARRERA PUNTUAN - IRITEN AURRETIK, AZTERTU BIZIKLETAREN EGOERA ETA JASO DENBORARI ETA IBILBIDEARI BURUZKO INFORMAZIOA - EZ AHAZTU URA, KONPONKETA OSAGARRIAK ETA SAKELAKO TELEFONOA ERAMAN BEHAR DITUZULA - EZ GUTXIETSI IBILBIDEEN ZAILTASUN TEKNIKOAK, ETA AUKERATU IBILBIDEAK ZURE GAITASUN TEKNIKOAREN ETA FISIKOAREN ARABERA.

KONTUZ - KONTUAN HARTU IBILBIDEETAKO BASO LANAK ETA NEKAZARITZA LANAK - KONTU HANDIA IZAN EHIZA GARAIAN - ERRESPETATU INGURUA - ERRESPETATU ITXITURAK, ETA ITXI BERRIZ IGARO ONDOREN. ERRESPETATU ZONA PRIBATUAK ETA KULTURA ETA ONDARE INGURUNEAK - ERRESPETATU NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA BASO JARDUERAK, INGURUKO BIZTANLE ASKOREN LANBIDEA BAITA - ERRESPETATU INGURUMENA, INGURUKO BIZTANLEAK ETA ANIMALIAK. EZ EGIN ZARATARIK. ERRESPETATU INGURUKO LASAITASUNA, HEGAZTIEK HABIAK EGITEN DITUZTEN LEKUTAN BEREZIKI - EZ BOTA PIZTUTA DAGOEN ZIGARRONIKI ETA POXPOLURIK; AXOLAGABEKERIA HANDIA DA, ETA OSO ARRISKUSUA - EZ BOTA ZABORRIK MENDIRA. UTZI JOLAS AREETAN EDO HERRIETAN DAUDEN EDUKIONTZIETAN.

GOZATU NATURAZ ZARATARIK ETA PRESARIK GABE.



IBILBIDE 5 - MONTOLAN DORREA